

Markina-Xemeingo ZUHAITZEN IBILBIDEA

1.-Bekobentako ikastetxean dagoen zedrotik hasiko dugu ibilbidea. Antza denez gaur egun ikastetxea dagoen tokian aspaldian, ingelesaren jauregia zegoen. Lorategiaren aztarnak igarri egiten dira. Hemendik eta Artibai kalea zehar, Arretxinagako zubirarte joko dugu.

2.-Arretxinagako zubia gurutzatu ondoren, San Migeleko basilizaren atzean dagoen gaztainondoa ikusteko aukera izango dugu, zaharra eta asko makalduta. Hemendik Xemeingo Andra Mari eliza ingurura joko dugu.

3.-Eliza ikusgarri honen inguruan hainbat zuhaitz ikus daitezke. Bat Xemeingo Haritza da. Berau itxura ikusgarria du.

4.-Berenon parean eta horma zahar baten alboan, Xemeingo Artea dago. Antza denez inguru hau Markinako urkamendia zen eta artea zen urkatuen amets gaiztoa.

5.-Hemendik Eskola laboreleko lorategira sartuko gara. Berton beste zuhaitz batzuen artean itzelezko Zedroa dago. Honen kolorea urdina da.

6.-Laboraleko lorategia atzean utziz eta Uagoneko lorategira joango gara. Berton beste zuhaitz ikusgarrien artean, bi Likidanbar daude. Lorategi berdinean beste zuhaitz hauek ikusteko aukera izango dugu, Haginak, Alkanforeroa, Magnolioak, Maitasunaren zuhaitza, Banbua.

7.-Xemein atzean utzita, Markinako zelairantz abiatuko gara. Aurrera jarraituz Karmengo kalean zehar, iturriaren parean dagoen Haritza ikustera geldituko gara. Oso egoera onean dago. Honez gain, gunee hau ikusgarria da zeren eta publikotasun ezaugarri ugariak ditu, hau da, bidea, iturria eta zuhaitza.

8.-Berriz errepidera aterako gara eta Erdotzako etorbide hartuko dugu. Bariantarekin bat egiten duen tokian bi Ezki eta Magnolioa daude. Zuhaitz bio hauek aintzinako lorategi batean zeuden nahiz eta orain rotunda batetan kokatua egon arren.

9.-Bide gorria jarraituko dugu eta polikiroldegiko parera heldu eta gero bide zidorra hartuko dugu. Zubi zahar bat gurutzatu ondoren Solarte jauregi atzean dagoen Alkanforeroa ikusiko dugu. Nahiz eta makal egon esanguratsua da toki honetan honelako zuhaitza aurkitzea arrotza baita. Hemendik Markinako zelaira joko dugu eta bertan ibilbidea bukatzen da.

ZUHAITZAREN BABESERAKO AHOLKU BATZUK

- Inguruan dugun paisaiaren babesean denok dugu zer ikusirik.
- Gozatu naturarekin eta ez iezaziozu kalterik eragin.
- Mendira edo paseatzera ateratzen zarenean ez ahaztu zamar poltsa zurekin eramatea.
- Gizakia eta hiriak, bizitza aurrera eramateko zuhaitzen beharra dute.
- Zuhaitzen presentziak hiri guneeetako bizitzeko egokitasuna hobetzen du eta bizi kalitatea hobetzeko ere beharrezkoa da.
- Ezagutzen dituzun tokiak aurkitu dituzun bezain garbi eta txukun utzi.
- Zuhaitz guneeak zaindu eta babestu, osasuna mantentzeko tresnak baitira eta honez gain basoak, berezko duen ederetasunaz gozatzeko aukera ematen digu.
- Babestu zuhaitziak, ondorengo belaunaldiak bizi modu guztiak maitatzeko eta naturarekin harremanetan bizitzeko aukera izan dezaten.
- Zuhaitzak gure kultura gozatzeko aukera ematen digu.
- Ibilbide honetan aurkituko dituzun zuhaitzetan eta besfeetan ere ez egizu markarik egin eta ez soka edo antzekorik jarri ere.



MARKINA-XEMEINGO
UDALA



MARKINA-XEMEINGO

ZUHAITZEN ibilbidea



MARKINA-XEMEINGO
UDALA

MARKINA-XEMEINGO

ZUHAITZEN ibilbidea



9. ALKANFOREROA



6. LIKIDANBARA



8. EZKIAK



7. HARITZA



1. ZEDROA



5. ZEDROA



2. GASTAINONDOA



4. ARTEA



3. HARITZA

